



Iraupen eskian bidea egiten

Andde Elizburu

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

EUSKAL
IRAKURKETA
GOB. ERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu
edo hondatuta baduzu,
BARREn bulegora etorri
eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko
behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak
pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue
pegatina kendu buzoitik.
Gure banatzaileek eskertuko dute.



ESKURATU ZURE TDT-HD HARTZAILEA



**ETA BERRESKURATU
ZURE TELEBISTA!**



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agoritu arte.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Edurne Izagirre

Psikologoa

Historia piska bat



"Bortxaketa ez zen zigor kodean sartu 1989ra arte"

A skotan entzungo zenuten, ezagutzen ez den historia errepikatu ohi dela. Hau gertatu ohi da geure bizi historia indibidualean, familiaren historian, nahiz gizartean.

Nik 44 urte beteko ditut aurten, eta ni jaio nintzenez (1980), emakumeok ez genuen lanerako, propietate naiz ondasunak izateko, ez dibortziorako eskubiderik. Gizonezko batek uste bazuen emaztea ez zela bere betebeharrak ongi betetzen ari, bere jokabidea zuzentzeko neurriak hartzeko eskubidea zuen, odoltzen ez zuen bitartean, eta eskua joan eta hilko balu, zigor handiena erbesteratzea izango zen.

Bortxaketa ez zen zigor kodean sartu 1989ra arte "ohorearen aurkako delitu modura"; honek esan nahi du ohorezko emakumeak erasotuz gero aplikatuko litzatekeela soilik.

Benetan uste duzue beste kultura batzuei handikeriaz begiratzeko moduan gaudela matxistatzat joaz?

4 GUTUNAK

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia eta Eskutitzak* ataletan adierazitako enarrantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Aurten gainera, iaz bezala, Atxutxiamaikaren Santa Ageda taldea ere irten da kantura eta eskera, katea eten ez dadin.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

32 urte!

1993ko otsailaren 4an izan zen lehen aldia. Ostiralarekin batera etorri zen Santa Ageda bezpera, eta aukera polita begitandu zitzaigun gure herriko ohitura zahar bati hautsa kentzeko. Hamar lagun inguru bildu eta 18 ordu pasa eman genituen baserriz baserri kantuan eta eskean. Bizipen ederra izan zen, betirako gordetzen den horietakoa. Lehen aldiak segida izan behar zuela erabaki genuen, eta baldintza bakarra jarri genion geure buruari: baserritarrek nahi duten arte jardungo dugu.

32 urte pasatu dira ordutik. 32 urte Elgoibarko baserriak eta baserritarrak koplatzen. Hasiera hartan baserri atarrietara azaltzen ziren aitona-amonak dagoeneko ez daude gurekin, baina haien ondorengoak bai, eta horiek ere estimatzen dute gure bisita. Irribarre goxo batekin hartzen gaituzte etxera arrimatzen garenean, koplak adi-adi entzun, etxe barruetara sartzeko gonbita egin, mimos prestaturako jan-edanetara gonbidatu, limosna bota...

Datorren urtean berriz ere bilduko garela elkarri esan ondoren hartzen dugu hurrengo baserriko bidea.



Pakita Ansuategi Maguregi

2024ko otsailaren 14an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Marivi Unzueta Iriondo

2024ko otsailaren 14an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Autoak motelago ibiltzeko zerbait jarri beharko lukete San Rokeko zebrabide honetan:

"San Rokeko zebrabide honetan autoak oso azkar ibiltzen dira, eta eskertuko genuke abiadura murrizteko trangoren bat jartzea".



Etxeko leihotik oso gertu jarri digute kaleko-argi bat:

"Trenbide kaleko 19. zenbakian farol berri bat jartzen ari dira, baina etxebizitzetatik gertuegi geratzen da, eta kale-argi horren argitasunak traba egingo die pareko bizilagunei. Gainera, jartzen ari diren horretatik oso gertu badago beste bat, beraz, ez zait iruditzen beharrezkoa zenik".



Elgoibar eta Azkarate lotzen dituen bide zaharra "erabat lagata" eta "egoera tamalgarrrian" dagoela salatu du herritar batek:

"Errepidea eta errepide bazterrak zuloz, arrakalaz eta luizi txikiz josita daude. Lotsagarria iruditzen zait horren lagata edukitzea. Sarriago garbitu beharko lituzkete bide bazterrak eta asfaltoa ganoraz konpòndu, hala eskatzen duten lekuetan; eta ez dira gutxi!"



Hemen bertoko arbola espezieak landatzeko dirulaguntzak banatuko ditu Elgoibarko Udalak



Hemen bertoko basoa sustatu nahi du Elgoibarko Udalak, eta hala, dirulaguntzak emango ditu hemen bertoko zuhaitz-espezieak landatzeko. Ingurune naturala eta tokiko biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko sortu dute laguntza-lerro hori eta 2023ko azarotik 2024ko martxora arte egindako landaketak izango dituzte kontuan. Landaketak 2023ko azaroan eta abenduan eta 2024ko urtarrilean, otsailean eta martxoan egin beharko dira zehazki.

Landatzen den arbola bakoitzeko bi euroko laguntza emango du Udalak, hektarea bakoitzeko gehienez 1.000 eurokoa. Dirulaguntza eskatzeko, baina, lursailek hektarea erdiko (5.000 m²) azalera izan beharko dute gutxienez eta hektareako gutxienez 500 arbola-landare sartu beharko dira. Hala ere, "justifikatutako kasuetan", zuhaitz kopuru txikiagoa diruz laguntzeko aukera ere hartuko dute kontuan, "bereziki basoaren hazkunde naturala badago". Era berean, derrigorra izango da landatutako ale bakoitzari babes-egokia ematea.

Eskaerak apirilaren 5a baino lehen egin behar dira *elgoibar.eus* atarian. Udaletik parte hartzera animatu dituzte herritarrak, "hemen bertako natura-ondarea hobetu eta zaintzeko".

Udalbiltzaren Partzuergoan sartu da Mendaro

Urtarrilaz goerotik Udalbiltza Partzuergoko kide da Mendaroko Udala. Udalaren abenduko osoko bilkuran aho-batez erabaki zuten bat zetozela Udalbiltza Partzuergoaren helburuekin eta estatutuekin, eta Kontseilu Nagusiari partzuergoan sartzeko eskaera egitea onartu zuten.

Euskal Herri burujabea eraikitzeko bidean, Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea ditu helburu nagusi. Horretarako, euskal lurraldea zatitzen duten hiru eremu administratiboetako udalen arteko elkar ezagutza eta lankidetzak instituzionala bultzatzen ditu. Horren harira, Enetz Ezenarro Mendaroko alkateak esan du: "Udalbiltzan sartzeak aukera zuzena emango digu gai estrategiko askotan beste udalerrri batzuetan gauzatzen ari diren proiektu interesgarri asko geure egiteko".

Kilimon bailarako sekretuak ezagutzeko irteera antolatu dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokikoek



Ez dute estreinako aldia irteera hau antolatzen dutena, baina errepikatze modukoa dela irizita, otsailaren 17rako beste deialdi bat egitea erabaki dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokikoek. 09:15ean abiatuko dira Elgoibartik Mendarora, trenez, eta han, Inma Mugertza hidrogeologo elgoibartarra lagun dutela, Kilimon bailara ezagutuko dute, Kilimon erreka ibilguaren ondotik gora eginda. Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte, Madarixatik Mendarora bitartean Kilimoiak zazpi kilometroko ibilbidean izaten dituen gorabeherak ezagutzeko. 14:00etarako Elgoibarren bueltan izango direla aurreikusi dute.

Artekalen igogailua jartzeko obra lizitaziora atera du Elgoibarko Udalak

Artekaleko eskailera mekanikoak kendu eta igogailua jartzeko obra abiarazi du Elgoibarko Udalak. Elgoibarko Arkhiru estudioak diseinatu eta idatzi du proiektua, eta orain obra esleitzeko lehiaketa publikoa jarri dute martxan. Udaletik azaldu dutenez, igogailurako proposatutako diseinua integrazioan eta funtzionaltasunean oinarritzen da, eta asmoa da espazio hori argi-arrakala bihurtzea, hormigoia eta beirazko pieza handiak erabiliz igogailua eraikitzeko. Proiektuak 247.901,63 euroko aurrekontua du (BEZik gabe) eta sei hilabeteko exekuzio-epa aurreikusi dute. Proiektu honetan parte hartu nahi duten enpresek otsailaren 28ra arte izango dute beren proposamenak aurkezteko



epa, kontratatzaillearen profilaren bidez, elgoibar.eus web orrian.

Haurrei lehen sorospenak egiteko ikastaroa antolatu dute Mendaron

Umeei lehen sorospenak egiten ikasteko saioa antolatu dute Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak, Treba Gurasoak egitasmoaren barruan. Gurutze Gorriko kideek emango dute saioa, eta oinarritzko ikasgaiak

landuko dituzte. Martxoaren 2an izango da, Mendaroko udalbatza aretoan, 09:00etatik 13:00etara. Tailerra doan izango da, baina izena emateko eskatu dute antolatzaileek: kultura@mendaro.eus

Gabonetako sariak banatu ditu Txankakuak



1.800 euro zozkatu ditu Txankakuak Gabonetan elkarteko dendetan erosketak egin zituzten herritarren artean. 500 euroko bi erosketa bono eta 100 euroko zortzi zozkatu dituzte. Mikel Lopezosa eta Iosune Berasategik jaso dute 500 euroko bono bana,

eta gainerakoek 100 eurokoa: Miguel Angel Vela, Constan Nuñez, Zuriñe Gurrutxaga, Patxi Gil, Jose Manuel Vela, Oihana Agirregomezkorta eta Maria Luisa Crucelegui. Sari bat eman gabe geratu da, ez sariduna eta ezta ordezkoa ere ez direlako azaldu.

Jose Ramon Cabrerak eta Ihart Garitaonandiak irabazi dute inauterietako argazki lehiaketa



Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du BARRENEK eta baditu irabazleak: Jose Ramon Cabrera eta Ihart Garitaonandia. Korrikako

materiala irabazi dute. Jaso ditugun argazki guztiak inauterietako bildumara gehitu ditugu, eta *barren.eus* atarian dituzue ikusgai.

Txosten teknikoak aztertuta, Pedro Mugurutzako eskolen eraikina eraisteko erabakia berretsi du Elgoibarko Udalak

Udaleko txosten tekniko batek Pedro Mugurutzako eskolaren egoera orokorra "oso eskasa" dela diagnostikatu du, eta txostenak hezetasunen, barne-egokitzapenaren, egituraren, fatxadaren eta irisgarritasunaren arazo kritikoak agerian utzi dituela esan dute Udaletik. Eraikinaren inguruan ere esku hartu behar dela zehaztu dute, egiturazko eta hondoratzeko arazoak daudelako ondoko plazatxoan. "Txosten teknikoak adierazitakoa

kontuan hartuta, eta HAPOaren jarraibideekin eta partaidetza-prozesuan adierazitako nahiekin bat etorritz", eraikina osorik eraistea eta sotoko solairu berri bat eta gainazalean urbanizazio berri bat eraikitzea proposatu du Udalak. Txostena oposizioko alderdiaren esku utzi dute, proposamenak egin ditzaten. Proiektu hori aurrera eramateko, Ideia Lehiaketa egin nahi dute 2024an arkitekturako profesionalen artean, obrak 2025ean hasteko.

Haur eta nerabeen emozioak lantzeko hitzaldia, hilaren 28an, Elgoibarren

Treba Gurasoak egitasmoaren barruan haur eta nerabeen emozioei buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak hilaren 28rako. Hitzaldi horien helburua da familiei funtsezko tresnak eta ezagutzak eskaintzea, gurasoen eta seme-alaben arteko hazkuntzarekin eta komunikazio eraginkorrekarekin lotutako gai garrantzitsuei heltzeko. Donna Apellaniz Nieto izango da hizlaria, eta gaztelaniaz emango du saioa. Izena emateko: labur.eus/TG atarian, 943 741 050 telefonoan edota gazteria@elgoibar.eus helbidean eman daiteke izena. Hitzaldia 17:30ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Martxoak 8ko egitaraua aurkeztu du Emakume* Feministen Asanbladak

Martxoaren 8rako hainbat ekitaldi antolatu ditu (Elgoibarko) Emakume* Feministen Asanbladak, eta ekintzetan parte hartzeko gonbitea egin diete herriko emakumeei. Emakumeak saretzea du helburu egitasmoak, eta elkarlanean prestatu dute egitaraua. Trikipoteo-berriketaldia egingo dute 18:30ean Kalebarrenen hasita, eta 20:00etan manifestazioa abiatuko dute Kalegoen plazatik, batukada doinuez lagunduta. Azkenik, Kultur Kafean afalduko dute. Afariak 10 euroko prezioa dauka. Izena eman behar da martxoaren 1erako, Pitxintxun, Kultur Kafean bertan edo <https://forms.gle/DD2vRLm9zHfK18VHA> helbidean. Batukadan parte hartzeko interesa duenak ere formulario horretan adierazi beharko du.

Elgoibar Lagunkoia taldea osatzeko deia egin dute Udaletik



A dineko pertsonengan arreta jarritz, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko sortu zuten Lagunkoia Sarea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Politika Sailak, eta Elgoibar Lagunkoia proiektua 2018ko urrian batu zen sare horretara. Elgoibarko diagnosia egitea izan zen proiektu horren baitan herrian egin zuten aurreneko gauza, eta horretarako 647 inkesta zabaldu zituzten Elgoibarren hainbat eragilek, tartean pertsona nagusien zaintzan inplikaturako erakundeek eta adinekoekin gertuko harremanak zituzten norbanakoek. Ondoren, hainbat ekintza gauzatu zituzten, diagnostikoan oinarrituta.

Orain, Elgoibar Lagunkoia proiektua ezagutarazteko beste ahalegin bat egin nahi dute Udaletik, bai eta talde berria osatzeko saiakera ere. Egitasmoan parte hartu nahi duten herritarrek izena eman beharko dute Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), otsailaren 20rako (martitzena). Izena ematen duten herritar guztiei bakarkako elkarrizketak egingo dizkiete gero, bakoitzaren espektatibak eta interesak ezagutzeko. Elkarrizketak, otsailaren 22an eta 27an egingo dituzte Jubilatuen Biltokiko Bilera Gelan. Prozesu honen ostean, talde eragilea osatuko dute, gehienez 20 lagunekoa. Talde eragile hori hilabetean behin bilduko da, Elgoibarren hobetu nahi diren gai jakin batzuei buruz hitz egiteko. Bilera horiek nagusientzako programak diseinatzen eta garatzen dituzten Bizipoz kooperatibakoek dinamizatuko dituzte. Informazio gehiagorako: 943 741 050 / arreta@elgoibar.eus.

Haurrentzako arbola landaketa antolatu dute biharko



Morkaiko Mendizale Elkartek, Elgoibarko Izzararen Atxutxiamaiak Sailak eta Elgoibarko Baso Biziak elkarteak beste zenbait herritarrekin batera osatutako *Naturaren Ezagutza* sustatzeko aurtengo egitarauaren barruan egingo den lehen ekintza izango da. Muskiritzuko magalean dagoen eta lagapen akordio bidez lorturiko lursail batean egingo dute landaketa.

Sallobenteko aparkalekuan elkartuko dira 09:30ean, han autoak bete eta landaketa lekura abiatzeko. 12 urtez azpikoak heldu batek lagunduta joan beharko dira. Arropa eta oinetako erosoak, eta ura eramateko eskatu dute, baina eskularruak eta tresnak antolatzaileek jarriko dituzte. Bukaeran hamaiketako ere jarriko dute.

Auzo-taxi zerbitzua jarri du martxan Elgoibarko Udalak

Garraio publikoa iristen ez den landa-auzoetan bizi direnen mugikortasuna hobetzeko auzo-taxi programa jarri du martxan Elgoibarko Udalak. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek auzo-taxi txartela eskuratu beharko dute Herritarren Arretarako Zerbitzuan (Santa Ana kalea, 2). Udalak hitzarmena sinatu du taxilari batzuekin, eta auzo-taxiaren esparruan egindako bidaia bakoitzaren kostua 15 eurokoa izango da, Azkue-San Roke auzorako izan ezik, 10 euroko kostua izango baitu. Erabiltzaileek 3 euro ordaindu beharko dizkiete momentuan taxilariari, eta Udalak ordainduko die gainerakoa.

King Kong zubi berria izango dena erakutsi du Udalak



Sei hilabete pasatu dira King Kong zubia berritzeko obrak hasi zituztenetik, eta zubi berriak izango duen itxura aurkeztu du Udalak.

Lanak faseka egiten ari dira, herritarrei ahalik eta eragozpen txikiena eragiteko. Une honetan lehenengo fasea gauzatzen ari dira, eta Udaletik esan dutenez, obrak erritmo onean doaz. Lehen zati honetan, N-634 errepidearen gainean pasabide bat eraikiko dute, igogailu batekin eta eskailerekin osatuta, autobus-geltokitik sarbidea errazteko. Beste aldeko pasabidea lantzen ere ari dira, Urazandiko ibilbidearekin zuzenean lotuko dena, eta inguru horretako oinezkoen zirkulazioa hobetuko duena. Sei hilabeteotan igogailuaren egitura eta sartzeko eskailerak

osatu dituzte, pasabidea egiten ari dira eta hilaren amaierarako muntatzea aurreikusten dute.

Bigarren fasean Deba ibaiaren gaineko pasabidea berrituko dute, eta N-634 errepidearen gaineko egungo pasabidea eraistea eta ibaiaren gaineko egitura berriarekin integratzea ere aurreikusten dute. Ondorengo etapetan, konexio-arrapala jarriko dute ezkerrean, eta igogailuaren goiko ontziratzea, bai eta Pilarreko ikastetxe zaharraren lurzatira sartzeko pasabidea ere.

Udalak bi informazio-panel jarriko ditu zubiaren punta bakoitzean, herritarrek obraren diseinuari eta obren-aurrerapenari buruzko informazioa eduki dezaten.



ANDDE ELIZBURU

Eskiatzailea

✍️ Asier Orbea

Iraupen eskian eta oro har eskian tradizio handia duten herrialdeetako eskiatzaile gazteekin lehiatu berri da Italian Andde Elizburu (Elgoibar, 2010), Euskadiko selekzioarekin. 3 urte zituenetik dabil eski gainean, eta jarraitu nahi luke bidean aurrera egiten, hankak lurrean dituela. Amarekin, Bidatz Azpiazurekin, azaldu da elkarrizketara. Elgoibarren sortu duten Ipar Irrintzi Ski taldearen bultzatzaile nagusietakoa da Azpiazu. Iruñeko Ipar Irrintzi taldearen adar modura sortu dute taldea, inguruko iraupen eskiatzaileentzako aterpe eta topagune izateko.

Balirudike zure adineko batentzat mendiko eskia edo snowboarda erakargarriagoa dela iraupen eskia baino. Noiz eta zelan hasi zinen iraupen eskia egiten?

Txikitatik joan izan naiz autokarabanan eskiatzera gurasoekin eta 3 urte bete aurretik jantzi nituen estreinakoz eskiak. Umetan, mendiko eskia egiten nuen, baina asteburu batean iraupen eskia egitera joan ginen, gustatu zitzaigun, eta geroztik, iraupen eskia egiten dugu. Egia esan biak gustatzen zaizkit, baina iraupen eskia denok batera egin dezakegu familian, basoan, eta hori gustatzen zait.

Bidatz: Gogoratzen naiz 6-7 urte zituela Belaguan geunden batean nola esan zidan: 'Ama, zein ondo gauden hemen, denok batera, paisaia hauek ikusten, naturan'. Denoi eragin zigun gogoeta hark.

Azalduiezaguzu mendiko eskiaren eta iraupen eskiaren arteko ezberdintasuna zertan datzan, eskia ez dakien batentzat bezala.

Mendiko eskia teleaulkian igo eta eskiatzen jaistea da, eta iraupen eskian norbere indarrez egin behar da dena. Igo, lauan ibili, eta gero, jaitsi. Lau motako eskiak daude: erdian, indar gehien egiten den lekuan, foka larrua dutenak, egokiak direnak igotzeko zein jaisteko; eskamadun eskiak, gero eta gutxiago ikusten direnak, lehen eskamadunekin ibiltzen zirenek ere orain fokadunak nahiago dituztelako; argizaridunak, txapelketetan dabilen jendeak erabiltzen



“Iraupen eskia denok batera egin dezakegu familian, eta hori gustatzen zait”

dituenak, eta mikroporodunak, berrienak, baina oraindik gutxi ikusten direnak. Nik normalean argizaridunak erabiltzen ditut, bai txapelketetan eta baita entrenatzeko ere. Fokadunak ere baditut, eta argizaria emateko asti gutxiarekin nabilenean erabiltzen ditut entrenatzeko eta baita lasterketa aurretik beroketak egiteko ere, baina gehiago ez. Iraupen eskian, estilo klasikoa eta skating edo patinatze estiloa daude eta bietan lehiatzen naiz ni.

Bi estiloetatik zein duzu nahiago?

Nire ustez ez dago ezberdintasun handirik batetik bestera, baina beharbada, skatinga dibertigarriagoa da, modalitate azkarragoa delako. Baina moldatu, hobeto moldatzen naiz estilo klasikoan, eta emaitzak ere hobeak lortu ditut.

Iraupen eskian ona izateko zer ezaugarri behar direla esango zenuke?

Eskiatzean gorputz osoa mugitzen da, eta beraz, fisikoki ondo egotea eskatzen du eta hauspo ona izatea. Oso kirol konpletoa da. Teknika menperatzea ere garrantzitsua da. Ehuneko portzentaje handi batean teknika menperatzea da eskiatzen jakitea eta txikitatik eskiatzen ibili izanak laguntzen du horretan. Teknika aldetik nahiko ondo ikusten dut nire burua, baina oraindik ikasteko asko daukat.

Nazioartean lehiatetik zatoz. Zer nolako esperientzia izan da Italiakoa? Estreinako aldia al da nazioartean lehiatzen zarena?

Ez. Iaz, Bessansen (Frantzia) izan ginen gure taldearekin harreman handia duten kataluniar batzuekin batera. Azkeneko bi azarotan joan naiz hara, denboraldi aurrean astebeteko egonaldia egitera; entrenatzera. Nazioartean lehiatu naizen lehenengo aldia aurten izan da, hala ere: Italian. Skiri Trophy lasterketa eta Marcialonga txapelketa jokatu ditut eta sekulako esperientzia izan da. Urduri joan nintzen, hemen zazpi lehiatzen garelako eta han berrehun inguru ginelako, eta oso maila handikoak asko. Ikusten ere jende asko zegoen eta antolaketa ere izugarria zen. Ikusten da han diru asko inbertitzen dutela lasterketa hauetan, telebistaz ere bota zutelako.

Euskadiko selekzioarekin joan zara. Zer giro topatu duzu selekzioan?

Oso giro ona. Batzuk ezagutzen nituen bistaz, baina denak oso jatorrak iruditu zaizkit. Oso entrenamendu gogorak egin ditugu, luzeak eta exijenteak eta bizkarreko minez bukatzen nuen. Paisajea ere ikusgarria zen. Dolomitak eta...

Euskal Herrian badago iraupen eskirako afiziorik?

Bidatz: Azkeneko urteetan esango nuke behera egin duela. Umeak zaletu nahi izan genituenean, ibili ginen geu ere talderen baten bila, eta dei batzuk ere egin genituen lehen eski taldea zuten klubetara, Eibarko Klub Deportibora-eta, baina ikusten genuen ez zegoela talderik ume-umetatik hasten zenik lanean. Uzturre taldea badute Tolosan, baina han ere, guk dakigula behintzat, ez dute egitura oso bat umeei txiki-txikitatik erakusten hasteko. Eta bila ari ginela Irrintzikoekin topo egin genuen. Iruñekoak dira, baina eskuzabalik hartu gaituzte nafarrak izan ez arren. Gaur gaurkoz, ez dugu topatu Iruñeko

"Urduri joan nintzen Italiara, hemen zazpi lehiatzen garelako eta han berrehun inguru ginelako"

Irrintzi taldeak eskaintzen duen besteko egitura duen klubik Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, eta horregatik sortu nahi izan dugu Irrintziren adarra den Ipar Irrintzi.

Oso ume direla hasi daitezke Irrintzin eskiatzen ikasten, eta gero lehiaketara ere bideratzen dituzte hala nahi dutenak. Egia esan guk geuk ere ez genuen uste txapelketa mundu honetan sartuko ginenik gure umeak eskiatzen hasi zirenean, baina hemen gaude. Ikusten genuen Irrintzi taldean gero eta gipuzkoar gehiago zeudela adibidez, baina nafarrak zirenek bazituztela abantaila batzuk guk ez genituenak. Bestiak beste teknifikazio saiioetan parte hartzeko aukera zuten eta baita beka batzuk eskuratzeko aukera ere. Andek ez zituen abantaila horiek eta linbo moduko batean geunden. Ikusten genuen gure Federazioaren barruan egon beharko genukeela guk ere, abantaila horiek lortzeko, eta horregatik sortu genuen Ipar Irrintzi. Momentuan bi familia gaude federatuta Ipar Irrintzin, baina badaude beste bost-sei familia ere gure taldean. Gure asmoa taldea handitzea da. Horregatik dei egiten diet beren umeak iraupen eskia egiten hasi nahiko luketenei taldera gerturatuzera. Irrintzin 6 bat urterekin hasten dira umeak eskiatzen ikasten, eta gero, behin 10-11 urte betetakoa, txapelketetarako prestatzen hasten dira, nahi baldin badute.

Zergatik uste duzu eman dela jaitziera hori?

Urruti daukagulako elurra. Erronkarikoak elurretan bizi dira, eta aukera dute eskolatik irten eta Belaguara igotzeko, baina guk lau orduko bidaia egin behar dugu astero-astero autokarabanaz eta gastu handia da hori. Hasieran gu ere ez ginen astero joaten, eta eskiatzeko eskola-egunak zituztenean bakarrik egiten genuen Belaguarantz, baina badakizu zer den hau: gustatu eta... Guk oso giro ona topatu dugu. Familia asko gara autokarabanaz mugitzen garenak eta hara-hona ibiltzen gara, lasterketa egutegiaren arabera. Irrintziko eski eskolak, hori bai, normalean Somporten izaten dira. Aurten, elur faltagatik, Somport itxita dute,



Irritzi taldekoen familia-argazkia.

baina, eta Belaguan ari dira eskolak jasotzen. Elurrik ez dago, baina egia da estazio batzuetan beste batzuetan baino lan handiagoa ari direla egiten dagoen elur hori zaintzeko eta horretan Belaguako estazioa ereduagarri ari da. Iraupen eskiak ez dauka tiradizo handirik ere, eta horrek ere eragina dauka. Beste kontu bat ere badago: beste kirolean, dela futboleko eta eskubaloian esaterako, konpromiso handia eskatzen diete umeei, behin 10 urte betez gero. Ume horiek ez dute aukerarik izaten beste kirol bat probatzeko, astebururo izaten dituztelako partidak. Are, familia-plan bat egiteko aukerarik gabe ere gelditzen dira askotan, eta hori niretzako arazo bat da, kirol horiek gizartearen duten indarragatik beste ate batzuk ixten dizkietelako umeei.

Baina, aldi berean, zaila da adin jakin batetik aurrera bi kirol eustea ere, ala?

Bidatz: Bai, garbi dago umek aukeratu egin beharko duela egunen batean, baina iruditzen zait aukeratu behar hori oso adin goiztiarretan iristen zaiela. Iruditzen zait 10-11 urteko ume batek aukera izan behar duela beste kirol batzuk ere probatzeko, dena ezin delako futbola edo eskubaloia izan. Nortasun handia izan behar du ume batek adin horretan bere lagun guztiak utzi eta bakar-bakarrik entrenatzera irteteko. Andde, aitarekin entrenatzen da Idotorbera bidean edo Soraluzetik Karakatera bidean. Kirol Patronatuak

aukera eman dio Mintxetako atletismo pistan entrenatzeko eta gimnasioa erabiltzeko, eta horrek aukera eman dio aitaren beharrik gabe entrenatu ahal izateko.

Zer asmo dituzu zuk, Andde?

Gustatuko litzaidake eskiatzen jarraitzea. Aurten emaitza onak ari naiz lortzen U14 kategorian, baina garbi daukat datorren urtean gerta daitekeela hain ondo ez ibiltzea 15 eta 16 urtekoen mailan lehiatuko naizelako, zaharragoekin. Badakit baita ere eskiatzaile profesionala izatea oso zaila dela, baina ez da hori ere nire ametsa. Konformatuko nintzateke aurrerantzean ere eskiatzen jarraitzeko aukera izatearekin.

Rolleskia egiten duzu entrenatzeko. Entrenatzeko bidea da ala ari da entitate propioa hartzen?

Eski denboraldirako prestatzeko egiten dut nik bereziki, baina hala ere, gustagarria da egia esan. Elgoibarren ez dago rolleskia arriskurik gabe egiteko aukera handirik nire adineko batentzat eta hori du txarra. Nire taldekideak astean bi aldiz entrenatzen dira rolleskian, Iruñea inguruan leku aproposagoak ere badituztelako horretarako. Hala ere, rolleskiaren inguruan ere sortu da liga bat, eta ematen dit aukera eskiko lagunekin urte osoan zehar jarraitzeko. Irteerak egiten ditugu, egonaldiren bat edo beste ere bai aterpetxeren batean eta balio digu gure lagunartea sendotzeko.

EGUN KOLORETSUAK

👤 Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia

Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus













Saxofoi-jole Gazteen Hamaikasax lehiaketa antolatu dute Elgoibarren hilaren 24 eta 25erako



Hamaikasax Saxofoi Elkarteak eta Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolak Saxofoi-jole Gazteen III. Hamaikasax Nazioarteko Lehiaketa antolatu dute otsailaren 24 eta 25erako. Lehiaketa honen bidez, saxofoi klasikoak zabaldu eta musikari gazteei saxofoiaren munduan jarraitzeko pizgarri bat eskaini nahi diete antolatzaileek, bai eta goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleei bultzada bat eman ere. Euskal Herriko saxofoi-joleez gainera, Kantabriatik, Madrildik, Tenerifetik eta Galiziatik etorritakoek ere parte hartuko dute, hemeretzi guztira, eta tartean Elgoibarko lau ere arituko dira: Elaia Etxaniz Irureta (A mailan), Laia Martinez Astigarraga (B mailan), eta Leire Etxaniz Bereziartua eta Itxaso Garaizabal Mujika (C mailan). Parte hartzen dutenak euren adin eta maila antzekoa duten beste musika eskola eta kontserbatorio batzuetako ikasleekin lehiatu ahal izango dira.

Lehiaketaz gainera, bi kontzertu ere antolatu dituzte. Otsailaren 24an, Musikeneko saxofoi taldekoak entzuteko aukera izango da, 19:00etatik aurrera, musika eskolako auditoriumean, eta biharamunean, otsailaren 25ean, beste kontzertu bat antolatu dute, Herriko Antzokian. Elgoibarko Udal Musika Bandak emango du kontzertua eta bandarekin batera bakarlari lanak egingo ditu Pablo Mira Rico saxofoi-joleak, iazko irabazleak. 12:30ean hasiko da kontzertu hori. Bi kontzertuak debalde izango dira, eta otsailaren 25ekoaren ondoren, lehiaketako sari banaketa ekitaldia ere egingo dute. Informazio gehiagorako: *hamaikasax.wixsite.com/hamaikasax*.

Sanbartolomeetako egitaraua osatzeko bilera antolatu du Elgoibarko Udalak hilaren 22rako

San Bartolome jaietako programaren zirriborroa eztabaidatu eta aberasteko bilera antolatu du Udalak hilaren 22rako. Aita Agirreko areto nagusian egingo dute bilera, 18:00etan hasita. Herritarrek proposatutako jarduerak koordinatu eta bateratzeko bidea ere aztertuko dute bileran. Bileran parte hartzeko asmoa dutenei eguna aurretik jakinarazteko eskatu diete: *kultura@elgoibar.eus*.



Sasikopotzu edo Txitxi-burruntzi ospatu dute Mendaron LH6ko ikasleek



Inauterietako domekan ospatu dute aurten sasikopotzu usadio zaharra Mendaro Ikastolako seigarren mailako ikasleek, Arno guraso elkartekoen eskutik. Tren geltokian bildu eta Olabazatik Santa Kurutzera igotzeko asmoa zuten, baina bustitik esnatu zen eguna, eta plana aldatu zuten derrigorrean. Lizarrolara irteera egin zuten lehenengo eta ondoren Aizpe elkartean egin zuten tradizioz mendian egin ohi den mokadua.

Elle Belga eta Modesto Newhouse taldeen kontzertuak, Mendaron



Irailaren 21erako iragarri dute Mendaron Gararock jaialdia, baina aurrez, bi kontzertu lotu dituzte Gararock taldekoek gaur zortzirako, otsailaren 23rako, Mendaroko Udalaren eta Ekintzak Bonberenearen laguntzarekin. Elle Belga talde asturiarra eta Modesto Newhouse ataundarrak. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 22:00etan, eta sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai, kulturguneko atarian bertan.

Xabier Etxeberriaren proiektu pertsonala da Modesto Newhouse. Talde proiektu askotan aritutakoa da Etxeberria, baina beti izan du bere kasa musikaren munduan murgiltzeko eta esperimentatzeko joera. Iaz, *Ez dut amets handirik* diskoa argitaratu zuen Ekintzak Bonberenearen eskutik eta honela aurkeztu zuen: "Niretzako egin dut, nirekiko zintotasun ariketa bat da". Post-rock, folk espektral eta piano ukitu hunkigarri jasotako doinuen artean herritarren ahots grabazioak tartekatzen ditu bere lanean, memoria, hizkuntza, gizartea, nortasuna, iragana eta etorkizuna bat egiten duten pasarte instrumentaletan.


Fany Alvarezek eta Jose Luis Garciak (Xixongo musika eszenan ezagunak ziren Manta Ray eta Viva las Vegas taldeetako gitarra jole eta ahotsa izandakoa) bikoak osatzen du Elle Belga. 2009an argitaratu zuten lehen lana, *1971*, eta gerotzik beste lau argitaratu dituzte: *Refugio* (2013), *Euforia* (2016), *Simetria* (2020) eta *Lagunak* albuma (2022), Bonberenearen eskutik argitaratutakoa. Intimitatetik sortzen dute eta ukitu anglosaxoia nabarmena da haien emarian. Lurrari eta herri kantei oso lotutako proiektua da haiena.

Sarrera gutxi batzuk gelditzen dira oraindik Elgoibarren 'Goazen!' ikusteko



Euskal Telebistako *Goazen!* telesailako aktore talde bat Elgoibarren izango da otsailaren 23an *Goazen!* kontzertuarekin eta oraindik gelditzen dira sarrera apur batzuk. Bi emanaldi emango dituzte, Herriko Antzokian: 17:00etan aurrenekoa eta 19:00etan bigarrena. Arratsaldeko bostetako emanaldirako sarrera banakak gelditzen dira salgai, baina bigarren saiorako gehiago daude. Sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean eskura daitezke: herrikoantzokia.eus. Helduek bosna euro ordaindu beharko dituzte, eta umeek eta Gazte Txartela dutenek, hiruna euro.

'Tu-tum Platz' bakarrizketa aurkeztuko du Jon Plazaolak domekan, Aita Agirren



Tu-tum Platz bakarrizketa antolatu du Kultura Sailak domekarako. Jon Plazaola hastapenetara itzuli da umorezko ikuskizun berri honekin. Taula gainean bere lehen agerraldia egin zuenetik 23 urte pasatu dira eta berriz ere *Stand Up* formatuko bakarrizketari heldu dio, hori bai; "23 urte zaharrago, 23 urte jakintsuago eta 23 urte kabroiago" dela. Aita Agirre kulturguneko sarreran izango da emanaldia domekan, 12:30etik aurrera, doan.

IKER GALARTZA / Aktorea

✍️ Ainara Argoitia

Gaixotasun batengatik behar baino aurretik erretiroa hartuko duen eskarmentudun enkargatu bat eta haren lekua betetzera datorren langile gazteago bat bilduko ditu Begoña Bilbao zuzendariak 'Almazenean' lanean. Lanera emana bizi izan dena da bata, eta lana bizitzeko egin behar dela uste duena bestea. Iker Galartzak beteko du aurrejubilatuko den langilearen papera, eta Zuhaitz Gurrutxagak iritsi berriarena. Gaur, herriko antzokian ikusteko aukera izango da, 19:00etan hasita.



“Ordu eta erdi irribarrez egoteko aukera paregabea da ‘Almazenean’”

Premia handirik ez duzue, sarrerren salmenta oso ona izan delako, baina atarikoan esandakoaz gain zer beste aurreratu dezakegu zalantzan dabilen hori antzokira erakartzeko?

Ez dut jakitzen zer esan nik, egia esan. Arantxa Iturbek irratiko *Arratsean* saiorako egin zigun elkarrizketa entzun zuen lagun batek esan zidan kalte egin ziola horrenbeste informazio jakinda joateak antzokira; gutxiago jakinda gehiago gozatu zuela bere emazteak. Sinopsian aipatzen dute galtzaileen kontzientzia ageri dela, laneko esplotazioaren eta sistema kapitalistaren salaketa egiten dela, baina nik ez nuke halako hausnarketa sakonik egingo. Esango nuke gauza polit bat ikusiko duela antzokira datorrenak, istorio polita dela kontatzen dena, eta eguneroko eszenatik ezagunak egingo zaizkiola landuko diren kontu batzuk, baina bereziki hori azpimarratuko nuke: gauza polit bat ikusiko duela eta barre egingo duela. Nire pertsonaiak zerbait ezkututzen duela nabarmena da hasieratik, baina Zuhaitz ere gezur txikiekin dator lantokira, eta gezurrena, batez ere geure buruei esaten dizkiegun gezurren kontu horrek, badu dramatik eta absurdotik.

Bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama, isilune deserosoak... Horiek antzezlanean, baina zuei bioi behintzat ondo doakizuela dirudi.

Bi urte egin ditugu biran *Lehendakari* antzezlanarekin eta egia esan oso ondo konpontzen

gara. Gozada bat da. Oso bestelako obrarekin gatoz orain, baina gustura. Istorio gordina da hau. Tragikomedia? galdetzen dute batzuek, eta ez dakit hori den, tragediatik asko duen arren. 'A zelako dramaioa!', bota zidan aurrerakoan lagun baten amak, psikiatra bera, eta bada, baina almazen huts batean gozo arnasten den drama da, irribarrea ateratzen duena. Kontrapuntu hori badu. Hausnarketarako zer pentsatua ematen du istorioak, baina aldi berean, umore handiko lana da. Txalok proposatu eta testua irakurri genuenean biok esan genuen 'bai'. Ni adi egoten naiz antzezlanean zehar publikoaren erreakzioari eta engantxatuta sentitzen ditut. Ordu eta erdi irribarrez egoteko aukera paregabea ematen dugu.

Amaitu berri da Euskal Telebistan Gure Zirkuari buruzko saioa. Nola uztartzen dituzu zirkuko lana eta antzerkikoa?

Ondo. Antzezlan honekin lau bat hilabetez ibiliko gara hona eta hara, maiatzera arte, eta gero dator zirkua, beste zortzi hilabeterako lana.

Sua Enparantzarentzako topatu duzu bere neurriko lekua zirkuan. Zertan jarriko zenuke Zuhaitz?

Abila da gure mutil hau, mutil bizkorra da, eta zalantzarik gabe, harreran jarriko nuke Gure Zirkuan, txarteldegian.

Zabalik dago Aste Santuko kirol campuserako izena emateko epea



Martxoaren 25etik apirilaren 5era bitartean egingo dute Aste Santuko kirol campusa Elgoibarren, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. 2012 eta 2017. urte bitartean (biak barne) jaiotako haurrek, hau da, LH1etik LH6ra artekoek, parte hartu dezakete. Olaizaga eta IMH kiroldegietan, Mintxetan, Ikastolako frontoian eta aire librean arituko dira gaztetxoak kirola egiten, 09:30etik 12:30era.

Izena emateko epea martxoaren 24an itxiko dute. Udal Kirol Patronatuko abonatuak 46 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko, eta abonatu ez direnentzako prezioa 51,20 eurokoa izango da. Guraso bakarrek familiek %30eko deskontua izango dute. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian eskura daiteke, edota 943 744 415 telefono zenbakira deituta.

June Loidi elkarrizketatu dute MATXeko 'Harrobitik' saioan



June Loidi Super Amara Bera Bera taldeko eskubaloi jokalaria elgoibartarra *Harrobitik* elkarrizketa saioan izan da asteon. Bere kirol ibilbidea eta eguneroko hainbat pasarte interesgarri azaldu zituen MATXeko elkarrizketa saioan. Egosten ari den tokian tokiko kirol komunitate digital berria da MATX, eta erredakzio taldeko kideetako bat da BARREN. Kirola dinamizatuko duen proiektua da, eta eduki freskoa eskainiz gertuko kirolarien nahiz kirol taldeen lana jarriko du balioan. *barren.eus* webgunean ikus dezakezue June Loidiri eginiko elkarrizketaren bideoa.

Hodei Ezpeleta Urrezko Aizkolarien binakako txapelketaren finalean izango da

Hodei Ezpeleta eta Jokin Urretabizkaia *Basozabalek* eskuratu dute Urrezko Aizkolarien binakako txapelketako finalerako hirugarren eta azken txartela. Oñatin jokatu zuten kanporaketan lortu zuten finalerako sailkatzea. Kanporaketa horretan beste bi bikote izan zituzten aurkari: Ugaitz Mugertzak eta Ibai Soroak osatutakoa, alde batetik;

eta Jon Rekondok eta Oihan Larretxeak osatutakoa, bestetik. Bost modalitate desberdinetan aritu ziren lehian, eta guztira 36 enbor moztu zituen bikote bakoitzak. Bihurrik eta Basozabalek bukatu zuten egin beharrekoa azkarren, eta horri esker, bi aste barru Azepeitian jokatu den Urrezko Aizkolarien finalerako sailkatu dira.



Lan erdiak eginda, sailkapenaren erdialdean

Liga erdia jokatu dute dagoeneko C.D. Elgoibarko talde nagusiek, gizonezkoen zein emakumezkoen Haundi taldeek. Ohorezko Erregional Mailan lehiatzen ari dira bi taldeak, eta sailkapenaren erdialdean daude. Sentsazio desberdinak dituzte, baina, bi entrenatzaileek. Orain arte egindakoarekin gusturago dago Andoni Duarte, emakumeen taldeko entrenatzailea, eta sentsazio gazi-gozoagoak ditu gizonezkoen entrenatzaile Iosu Guineak

Hamasei talde ari dira lehian Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan, eta 17 jardunaldi jokatu ostean 10. postuan dago Emakumezkoen Haundi taldea, 20 punturekin (6 partida irabazi, 2 berdindu eta 9 galduta). Ligako irabazleak zuzenean lortuko du igoera eta igoerarako fasea jokatuko du bigarrenak, Bizkaiko eta Arabako txapeldunordeen aurka. Antiguoko eta Mariño Real Union taldeak daude une honetan sailkapeneko lehen bi postuetan, 48 eta 46 punturekin; eta, alde nabarmena ateratzen diote hirugarren postuan dagoen Urola taldeari (34 puntu). Hiru taldek galduko dute maila eta zazpi puntuko aldea dute elgoibartarrek jaitziera postuak ixten dituen Hernanirekiko. Elgoibartarrek iaz lortu zuten Ohorezko Erregional Mailara igotzea eta ondo egokitzen ari direla uste du Andoni Duartek. "Denboraldi erdiko balorazioa positiboa da, igo berriak garelara aintzat hartuta". Talde guztien aurka jokatu ostean, Mariño eta Antiguoko taldeak beste guztien gaineratik daudela dio, baina gainerakoen

artean parekotasun handia dagoela. Etxeko partidetan erakutsitako mailarekin dago pozik, bakararra galdu baitute. Aldiz, asko kostatzen ari zaie etxetik kanpo emaitza onak eskuratzea. Oro har, sailkapenean merezi duten lekuan daudela iritzi dio: "Horixe da orain arte egin dugun lanaren ispilua". Mailari eustea dute helburu, eta jokalaririk maila honetako jokora egokitzea, urte askoan kategoria honi eutsi ahal izateko.

Hasiera gorabeheratsua

Gizonezkoen Haundi taldea 9. postuan sailkatuta dago (7 partida irabazi, 5 berdindu eta 9 galduta), 21 jardunaldi jokatu ostean. Gizonezkoen Erregional Ohorezko Mailan 18 talde ari dira lehian eta 34 jardunaldi jokatuko dituzte. Haundik 22 puntura du liderra, Aretxabaleta, eta, zazpi puntuko aldea dute jaitziera postuetan dauden taldeekiko. Hiru taldek galduko dute maila, baina aukera handiak daude laugarren talde batek ere koska bat beherago egiteko, izan ere, sailkapenaren zuloan daude 3. mailan lehiatzen ari diren talde gipuzkoar bat baino gehiago, Añorga, Pasaia edo Anaitasuna bera, esaterako.

Benetan balio duen balorazioa denboraldi bukaeran egin behar dela uste du Iosu Guinea entrenatzaileak. Halere, gauza bat du argi: sailkapenean dauden tokian baino gorago egotea gustatuko litzaioke. "Baina, bolaraka joan da ligako lehen erdia, hori da errealitatea. Bolara ona lehen 6-7 partidetan eta gero bolara



oso txarra; zazpi partida eman genituelako irabazi gabe. Gorabehera horien ondorioz gaude sailkapenean erdialdean, eta sailkapenak ez dio gezurrik. Baliteke partida gutxi batzuetan gehiago edo gutxiago merezi izana, baina liga moduko txapelketa luzeetan merezi duen lekuan amaitzen du talde bakoitzak". Gabonak arte jokatu zituzten hamasei partidetan gol gutxien jaso zuen taldea izan zirela zehaztu du, Mutrikurekin batera. "Egin genuen taldelan hori balioan jarri nahi dut. Aldiz, Gabon ostean etxetik kanpo jokatu ditugun hiru partidetan gol asko jaso ditugu. Hamasei partida haietan 13 gol jaso bagenituen, urtea hasi denetik jokatutako bost partidetan 16 gol egin dizkigute. Datu horiek erakusten digute non daukagun hobetu beharra". Aurrera begira, Mintxetan jokatu eta irabazi dituzten azken hiru partidak iparrorratz

ona direla adierazi du Guineak, "berriro ere talde sendo bat" izateko bidean. Nabarmentzekoen atalean, jokalarien jarrera eta lanerako gogoia goraipatu ditu. "Ilusioarekin datoz entrenatzera eta talde giro sanoa dago. Ezinbestekoa da ondo funtzionatzeko, eta oso pozik gaude". Guineak aitortu du sailkapeneko aurreneko postuetan ibiltzea zela denboraldia hasi aurretik zuten helburua eta momentuz ez direla betetzen ari. Mailari eusteko puntuak lehenbailehen lortzean dute orain premiarik handiena. "Behin hori lortuta, denboraldia ahalik eta ondoen amaitzea gustatuko litzaidake, sailkapenean ahal dugun goren eta sentsazio onekin. Halere, baditugu sailkapenetik harago doazen helburuak ere. Talde moduan hazi eta hobetu nahi dugu eguneroko lana abiapuntutzat hartuta. Oinarriak finkatzea, alegia".



Guillo eta Oteo anaiak, elkarrekin Haundiren hamaikakoan

Williams anaiak, Gasol anaiak... badira elkarrekin jokatzen iritsi diren hainbat anaia ezagun kirolean, eta C.D. Elgoibarrek ere badauzka bereak, eta ez pare bakarra, bi baizik. Josu Guinea entrenatzaileak Jon eta Julen Guillo eta Iñigo eta Julen Oteo anaiekin osatu zuen joan den zapatuan Mintxetan zelairatu zuen hamaikakoa. "Guk dakigula ez da horrelakorik gertatu klubak daukan 107 urteko ibilbidean", azaldu dute kirol taldeko arduradunek. Haundik 2-1 irabazi zion Oiartzuni 22. jardunaldiari zegokion neurketa.

LANA**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **620 757 528**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. **632 420 940**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. **642 577 823**

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **637 222 318**

Orduka edo etxeko langile moduan egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia handia ditut. **631 020 169**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat, eta titulua. Gauzez eta arratsaldean aritzeko prest. **660 919 423**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa dut, erizaina naiz eta esperientzia daukat. **643 505 662**

Jardun erdiz egingo nuke lan, adinekoak zainduz edota etxe eta bulegoetan garbiketa lanak eginez. **627 163 168**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut. **623 731 063**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere prest. Esperientzia. **624 316 594**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere bai. Esperientzia. **642 578 943**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edota gauetan. **631 417 922**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere bai. Titulua eta esperientzia ditut. **642 577 823**

Arratsaldeetan edo asteburuetan lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. **674 535 912**

Edozein lan egiteko prest nago: txofer, elektrikari... **624 068 334**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Barruetako margoketa lanak ere egiten ditut. **632 708 954**

GARAJEAK

Garaje bat edo lokal bat hartuko genuke alokairuan Mendaron edo inguru gertuan. **616 766 673**

ETXEBIZITZAK

Gazte elgoibartarrak etxea hartuko luke alokairuan epe luzerako. **619 966 696**



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkate Elkar Administrazioak
Laraldi Komunitateak



ROSA Mª PINTADO

Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Errentan bizi naiz, eta bizi naizen eraikinaren teiltua hondatuta dago. Horregatik, itokinak dauzkagu etxean. Behin baino gehiagotan ohartarazi diot jabeari, baina hark komunitateko presidentearengana bidali nau beti, berak ezin duela ezer egin arrazoituta. Duela egun batzuk, horrenbeste alditan esan niola- eta, presidentea etxera etorri zitzaidan zer geneukan ikustera, baina ez zuen itokinak konpontzeko konpromisorik agertu. Jakin nahi nuke zer egin dezakedan.

Alokairuan egonda, zuk zeuk ez daukazu inolako lotura juridikorik komunitatearekin, etxejabearekin baizik. Ugazabarekin daukazu hitzarmena lotuta zuk. Beraz, haren kontra baino ezin duzu egin, eraikinaren jabetza horizontalari lotutako kontuak etxebizitzan, lokalak, garajeen, trastelekuen... jabeai eragiten dielako.

Ondorioa: Errentan dagoenak ez dauka titulu juridikorik jabeakideen komunitateari ezer eskatzeko. Eraikineko elementuren baten jabeak baino ezin du egin hori. Hala ere, etxejabearen betebeharrak nagusia da alokairuan emanda daukan etxea bizitzeko baldintza duinetan izatea, eta zuk diozun kasu honetan ez du bere betebeharrak betetzen, hezetasun-arazoek bizitzeko baldintza egokiei zuzen-zuzenean eragiten dietelako.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak! 89 urte eta oraindik gogoan dauzkazu Markesaren alabaren bertsoak! Aittola Zaharren bilduko gara laster, zure eguna merezi bezala ospatzeko. Maite zaitugu. Etxekoak.



Zorionak, **Sara**, gure etxeko *señoritie*, atzo, otsailaren 15ean, 12 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Jakes!** Egun polit bat izan dezazula! Etxekoen partez, bederatzí muxu potolo zuretzako!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Osasun gida

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

RPS 271/12

ainhoa
fisio terapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

Jeku edero
hortz klinika
RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

16 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Almazenean'. Txalo produkzioak antzerki taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

17 ZAPATUA

09:15 Kilimon bailara ezagutzeko irteera gidatua, Inma Mugertzarekin. Elgoibarko Jubilatuen biltokiak antolatuta. Trenez joango dira.

18 DOMEKA

12:30 'Tutum Platz'. Jon Plazaolak egingo du bakarriketa. Aita Agirre kulturgunean.

23 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Antzerkia: 'Goazen!'. EITBko telesaileko aktoreek kontzertua emango dute. Herriko Antzokian.

20:00 Elkarretaratzea, euskal preso, deportatu eta errefuxiatuen alde. Elgoibarko Sarek deituta, Kalegoen plazan.

22:00 Elle Belga eta Modesto Newhouse taldeen kontzertuak, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Gararock taldeak antolatuta, Mendaroko Udalaren eta Bonberenea Ekintzaken laguntzarekin.



Trini Barrutia Mendikute

"Goiko-errota"

2024ko otsailaren 1ean hil zen
Bahia Blancan, Argentinan, 97 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Alejo Rolo Andres

2024ko otsailaren 7an hil zen,
54 urte zituela.

Gaztetxeko lagunak



Zinea
Herriko Antzokian



'Perfect days'
 16, barikua: 19:00
 17, zapatua: 19:00 / 22:15
 18, domeka: 19:00
 19, astelehena: 21:00



'Los colonos'
 (Ongarri zinekluba)
 21, eguaztena: 21:00 (VOS)



'Thabo y el caso del rinoceronte'
 18, domeka: 16:30

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OTSAILA

16 BARIKUA	■ Fernandez
17 ZAPATUA	Yudego
18 DOMEKA	Yudego
19 ASTELEHENA	■ Oruesagasti
20 MARTITZENA	Barrenetxea
21 EGUAZTENA	■ Ibañez
22 EGUENA	Garitaonandia
23 BARIKUA	Arriola

2024 urte guztian, gauzez:
 Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--



Probatu **TEMPUR PRO** lastaira
 eta gozatu atsedeen indartzaile
 eta lasaigarriago batez.

Etorri, bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Aste honetako erretratu zaharra Maritxu Egañak ekarri du BARRENERA. 1999ko inauterietan ateratakoa da, argazki estudio batean. Arrese Lariz anaiak dira argazkian ageri direnak: ezkerrekoa, Iñigo eta eskuinekoa, Ion. Urte hartan Zipi eta Zape anaia bihurriez mozorrotu ziren eta seguru aprobetxatu zutela beraiek ere bihurrikeriren bat egiteko.





Iñaki Gabilondo Arrieta

2024ko otsailaren 7an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gu ikusi eta
esan bezate:
"Bekokian daramate
haren itzala;
familiar dute
oraindik ere".***



Antonio Etxabe Juaristi

2024ko otsailaren 12an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Eskerrik asko eman diguzun
maitasunagatik
eta poztasunagatik.
Askok maite zaitugu.***

Etxekoak



X. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

***Lurrak eguzkiari
jira eta bira
zu joan zinen unetik
hamar buelta dira
zure oroitzapenek
badute segida
gure bihotz barrura
jarrita begira
Amaia, bizi ikusten
da zure distira.***

Etxekoak



ATXUTXIAMAIAKAREN

UDABERRIKO OPORRALDIA

HH2 - LH6



IZENA EMATEKO EPEA: otsailak 19- 29

- On-line izena emateko: QRan
- "www.elgoibarkoizarra.eus" webgunean
- Aurrez aurre
 - Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen bulegoan (Aita Agirre 3, 3 ezkerre)

izen ematea



labur.eus/udaberria24

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

